

Hezkuntza-kooperatiben egoera EAE-n

*Felix Basurko
Xabier Galarreta
J.F. Lukas
Iñaki Pikabea*

Euskal Herriko Unibertsitatea
Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Saila
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GAKO-HITZAK: Hezkuntza. Kooperatibak. Euskara-normalkuntza. Immigrazioa. Hezkuntza-Premia Bereziak.

1. TESTUINGURUA

Ekimen hau kooperatiben eremuko 2004-2007 epealdiko Plan Estrategikoan kokatzen da, non gizarte-kohesio handiagorako kooperatiben akordioa garatu nahi den.

Egoera honek Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioa (EIKF), Eusko Jaurlaritzarekin batera, Hezkuntza-Behategi bat sortzera bultzatu zuen. Hartara, euskal gizartearen arazo estrategikoak behatu eta hobetzeko irtenbideak bilatzeko aukera ikusten da.

Egoera honetan, 2005eko Kudeaketa-Planean, hezkuntza-mundura mugatu gabe, gizarte-kohesiorako euskal kooperatiben ekarpena hezkuntza alorrean jorratzea proposatu zen. Horretarako hiru esparru aztertu nahi izan ziren:

- Hezkuntza-premia bereziko ikasleria.
- Ikasle etorkinen eskolaratzea.
- Hizkuntza-normalkuntzaren trataera: Euskara.

Ekimen honen helburuak eta jarduerak honako hauek izan dira:

- 1) Kooperatiben nahiz EAeko hezkuntza-sistemaren esparru anitzen datu errealen berri izatea.
- 2) Kooperatibetan eskaintzen diren gizarte- eta hezkuntza-irtenbideak aztertzea.
- 3) Kooperatiben premien bilduma osatzea.
- 4) Gizarte-berdintasuna eta erantzukizuna aintzat hartuz, gizarte-kohesiorako, hezkuntzarako, hizkuntzarako eta kulturarako integrazio-politika-erako proposamenak gauzatzea.
- 5) Hainbat administrazio eta ikastetxerekin elkarlanerako loturak osatzea.

Beraz, artikuluko honek 1. puntua garatuko du, irakaskuntza-kooperatiben datu errealak eskainiz, baita gainerako euskal hezkuntza sistemako bazuk ere, elkarren arteko alderaketak egin direlarik.

2. LAN-DISEINUA

2.1. Abiapuntuak

Lehen hartu-emanen data (2005eko maiatza) eta amaiera-epea aintzat hartuta (2005eko azaroa), bi aldeentzat argi geratu zen ikerketa-lana bereziki deskriptiboa izango zela. Hartara EIKFk gizarte kohesioaren trataera aztergai hartuta, aipaturiko hiru eremuetako irakaskuntza-kooperatiben datuak izango lituzke, gerora aztertu ahal izateko, eta hezkuntza-sistemaren gainerako kideekin izan lezakeen ardura ikusteko.

Bide batez, Federazioa prest agertu zen ikertzaile-taldeari Euskal Hezkuntza Sistemako datu orokorrak helarazteko, bere interesguneetan alderaketak egin ahal izateko Irakaskuntza-Kooperatiben eta gainerako Hezkuntza-Sistemako egoeren artean.

2.2. Lan-urratsak

Urratsak	Eginkizunen deskribapena
1	Datu-bilketarako tresnaren prestakuntzan.
2	Datu-bilketa
3	Datuen informatizazioa eta azterketa.
4	Behin-behineko txostenaren idazketa eta eztabaida.
5	Behin betiko txostenaren idazketa eta emaitzen zabalkundea

2.3. Datu-jasoketarako tresnak

Ikerketaren izaera deskriptiboa adostu ondoren, lau eremutara bideratutako galdera-sorta bat osatzeari ekin zitzaion (ikastetxe bakoitzaren *Datu Orokorrak*, *Ikastetxeko Euskararen Normalkuntza-Plana*, *Hezkuntza-Premia Bereziekiko Arreta* eta *Ikasle Etorkinentzako Harrera-Plana*). Datuok *etapaka*, *hizkuntza-ereduka* eta *lurreldeka* sailkagarri izatea nahi zen.

Epeak laburrak izanik, eta lehen aldia zenez EIKFtik datuok eskatzen zirena, datu-bilketarako euskarri digitala aukeratu zen. Webgune bat osatu zen, www.esnatu.net/koop, bertan galdera-sorta azaltzen zelarik, era hone-tan, pasahitz baten bidez, ikastetxeek bazuten atzipena bertara eta bere erritmoan sar zitzaketen beren datuak.

2.4. Landa-lana

EIKF-k, bere lehendakariaren bitartez, egingo zenaren berri eman zien ikastetxeei eta, aldi berean, ikertzaileoi landa-lanari ekiteko oinarritzko da-tuak eman zizkigun. Landa-lanerako koordinaziorako ikastetxe guztien lankidetzaz jaso zen. Ikertzaile-taldeak landa-lanerako koordinatzailea izen-datu zuen.

2.5. Mugak eta gertakariak

EIKFri eta gainerako ikastetxeei eskerrak eman nahi dizkiegu eskainita-ko laguntza eta erraztasun guztiengatik. Jabetzen gara erabilitako euskarri digitala, erabilera erraza izan arren, galdera-sorten itemen interpretazioan zenbait gaizki ulertu eragin dituela.

Edozein erataraz, datu-basearekiko hainbat komunikazio bide egokitu ziren (telefono eta e-posta) ikastetxeek argibideak jaso zitzaizkien sortutako zalantzen aurrean. Aldi berean, lan honetako emaitzen bilketa ikertzaile-taldearen eta EIKFren artean suertatutako komunikazio arinari esker ere zor zaiola erantsi beharra dago.

- IKERTZAILE-TALDEA: Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Pedagogiako sailarteko irakaslez osatua izan da.
- LANDA-LANERAKO KOORDINATZAILEA: Iker Laskibar (pe-dagogoa).
- INFORMATIKARI-TALDEA: Iker Laskibar eta Amalur León.

3. ATALKAKO ONDORIO LABURTUAK

3.1. Datu orokorrak

Euskal Autonomi Elkartearen 2003-04 ikasturtean 222.247 ikasle izan zi-ren matrikulatuta. Horietatik, 37.137 kooperatiba-ikastetxeetan bildu ziren. Alegia, EAEko ikasleen %16ak kooperatibetan ikasi zuen ikasturte horre-tan. Lehen taulan ikusten da EAEko ikasleen matrikulazioaren banaketa.

1. taula

EAEko ikasleen banaketa ereduka eta sareka

Maila	Eredua	Kooperatibak		Pribatuak* (kooperatibak barne)		Publikoak*		Guztira*	
		Ikasle-kopurua	%	Ikasle-kopurua	%	Ikasle-kopurua	%	Ikasle-kopurua	%
Guztira	A	3.698	9,95	30.074	25,05	11.575	11,32	41.649	18,73
	B	5.255	14,15	43.408	36,16	19.207	18,79	62.615	28,17
	D	28.184	75,89	44.808	37,32	71.423	69,88	116.231	52,29
	X**			1.752	1,45			1.752	0,78
	G	37.137	100	120.042	100	102.205	100	222.247	100

* *Iturria:* Hezkuntza-Sailak bere webgunean (www.hezkuntza.net) eskaintzen dituen 2003-2004ko datuekin guk egindako elaborazioa.

** Ez dira zehaztu.

Euskadiko Irakaskuntza-Kooperatibak (EIKF) ikastetxe osatuak dira, %91.1ek derrigorrezko irakaskuntzako maila guztiak ematen baitituzte, alegia, *Haur Hezkuntza* (HH), *Lehen Hezkuntza* (LH) eta *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* (DBH). Gainera, %36.5ak *Eskolaurrea* eskaintzen du eta %43.5ak *Batxilergoa* ere bai.

2. taula

Ikastetxe kopuruak eta portzentajeak eremuka

Eremuak	Kopurua	%
ESKOLAURREA-HH	1	1,6
ESKOLAURREA-HH-LH	1	1,6
ESKOLAURREA-HH-LH-DBH	23	36,5
ESKOLAURREA-HH-LH-DBH-BATXILERGOA	27	43,5
HH-LH	1	1,6
HH-LH-DBH	3	4,8
HH-LH-DBH-BATXILERGOA	4	6,3
DBH	1	1,6
BATXILERGOA	1	1,6

Hizkuntza-ereduak aintzat hartzen baditugu, EIKFk bere barnean hiru eredu-
 etako ikastetxeak biltzen ditu, nahiz eta gehientsuenak murgiltze-ereduak di-
 zituenak izan, alegia, D eredukoak (%61.9), edo B+D eredukoak (%14.3).

3. taula

Ikastetxe kopuruak eta portzentajeak hizkuntza-ereduka

Hizkuntza-ereduak	Ikastetxea	%
A	4	6,3
B	1	1,6
D	39	61,9
B-D	9	14,3
A-B	6	9,5
A-B-D	1	1,6
EZ DAKIGU	3	4,8

4. taula

Ikasleen banaketa etapaka eta ereduka: kopuruak eta portzentajeak

Maila	Eredua	Kopurua	%
HH	A	540	5,59
	B	1.559	16,14
	D	8.389	78,26
	Guztira	10.488	100
LH	A	1.006	6,99
	B	2.651	15,87
	D	11.676	77,12
	Guztira	15.333	100
DBH	A	2.152	20,00
	B	1.045	9,71
	D	8.119	70,27
	Guztira	11.316	100

EIKFko hizkuntza-eredukako eskolaratzeak, D eredia zenbat eta behe-
ragokoa izan maila, orduan eta zabalduagoa dagoela adierazten digu. Era
berean, egoera hau LHn eta HHn iraunkor dagoela bistaraten da. Honek
eskaerari eutsi egiten zaiola adieraz lezake, B eta D ereduaren arteko joan-eto-
rri txikiak egonez. DBHn, ordea, erabilitako datuen arabera, A ereduaren
matrikulazioa indartu egiten dela ikusten da (%20), B eta D ereduetatik
etorritakoen eraginez.

3.2. Hizkuntza-normalkuntza

Azaldutako datuen arabera, ikusten denez **ingurua**, oro har, erdalduna
da (ikastetxeen inguruneen %59.3a hala omen da). Hala ere badira euska-
raren aldeko ekimenak. Azpimarragarria da Arabako egoera: ingurunea er-
daldun izanik, euskararen aldeko neurri ugari antolatzen omen dira (ikasta-
roak, eskolaz kanpoko ekintzak, e.a.).

Zikloka aztertuz, esan liteke eremu «euskaldunena» HH dela, gero LH
eta azkenik DBH.

Ereduak aintzat hartuta, esan liteke zenbat eta euskaldun gehiago izan
eredu jakin batetan (D alegia), orduan eta euskararen aldeko ekitaldi gehia-
go daudela. Edozein izanik eredia, ikaslea **adinean** aurrera joan ahala,
euskararen erabilera murriztu egiten dela ikusten da, baita D ereduaren ere.

Irakasleen Hizkuntza Eskakizunak aintzat hartuz, ikusten dugu
HHko irakasleriaren %89ak 2.HE duela, LHko irakasleen %85.5ak eta
DBHko irakasleen %83.3ak. Beraz, irakasleen hizkuntza-gaitasuna nabar-
men altua da.

Euskararen erabilerari dagokionez, **ikasleen ohiturei** erreparatuz,
HHko eta LH ikasleak normalean euskaraz aritzen dira, bai ikasgelan, bai
jolasorduetan. Baina DBHn joera hori beheraka doa, jolas-orduetan erdira
murriztuz euskararen erabilera. Umeek, lurralde guztietan, gehienek euska-
raz dihardute, bereziki Bizkaian. Jolas-orduetan dituzten ohiturei begira-
tuz, Araban bietara aritzen omen dira, eta Bizkaian nahiz Gipuzkoan eus-
karaz gehiagotan.

Euskararen erabileraren inguruko **erabakiei** dagokienez, badirudi euska-
ra erabiltzeko har daitezkeen erabaki nagusienak hartuta daudela ikastetxee-
tan, alegia, badagoela planteamendu bat eta ez direla unean uneko erabakiak
hartzen. Ikastetxeen barneko errotulazioa elebiduna da. Eskola-Kontseiluak,
oro har, elebidunak dira, Araban izan ezik, gazteleraz egiten baitira. Guraso-
bilerak gehientsuenetan elebidunez egiten dira. Azkenik, irakasleriak euskara
bere jarduera eta egoera guztietan erabiltzen du: bileretan, solasaldietan eta
idatzizkoetan (gutun, ohar, e.a.).

Gurasoei dagokienez, esan beharra dago euskararen egoera ez dela hain
baikorra. Araban denek erdaraz dihardute, eta Bizkaian gehientsuenek.
Dena dela, ez dirudi egoerak honek ikastetxeetan barne-antolaketan eta eus-

kararen normalkuntzan eragina duenik. Bestetik, sendien %42.9an gutxienez gurasoetako bat euskalduna den arren, azpimarragarria da gehientsuenak ez dabiltzala euskararen ikaskuntzarako jardueretan (euskaltegietan, transmisio-taldeetan, etab.).

3.3. Integrazioa planak eta/edo ikasle etorkinen integrazioa ikastetxeetan

Ikastetxeen %36k ba du Ikastetxeko Harrera-Plana, nahiz eta %47k Integrazio Planen bat baduela esaten duen. Oraindik zeregin ugari dago. Eztabaida gai litzateke ea ikasle etorkinik behar den ikastetxean eskolek Harrera eta Integrazio Planen bat izateko. Gainera, diru-laguntzen kulturak beti Administraziopean aritzera behartzen du. Bestalde, azpimarratzekoa da Harrera-Planetan murgilduta dauden EIKFko ikastetxeek eskarmentu handia dutela.

Ikastetxeko Harrera-Planek eragindako estrategietan, 4. taulan ikusten denez, ikastetxeek estrategia *curricularrak* erabiltzeko joera handiagoa dute *kulturarteko* estrategiak edo *antolaketa-* eta *funtzionamendukoak* baino. EIKFko ikastetxeetan kulturarteko trataera eskolaratzeko joera berriro ere nabarmena da.

Gipuzkoako ikastetxeak dira Harrera-Planen alde nabarmenen ageri direnak, baita *estrategia curricularrak*, *antolaketa*koak eta *kulturartekoak* indarrean jartzen ere.

Ikastetxeko Prestakuntza-Planen inguruan, ikusenez, ikastetxek kulturarteko-tasanaren trataera nahiko azalekoa dela. Honek pentsarazten digu EIKFko kooperatibek Gizarte Kohesiorako ekarpenaren helburuan zein neurritaraino dauden murgilduta.

Ez dugu daturik EIKFren ikastetxeetako baloraziorik egiteko sare publiko nahiz pribatuko gainerako ikastetxeekin alderatuz, ez Ikastetxeetako Harrera-Planen inguruan, ezta administrazioak esleitutako baliabide eta laguntzen inguruan ere.

Giza baliabideekin loturiko beste kezka bat figura berrien premia da. Gure inguru kulturaletik urruti dauden kultur eta hizkuntzetatik datozen ikasleek ikastetxeetan sortzen dituzten kulturarteko egoeren trataerarako agente eta figura berriak beharrezkoak ikusten dira.

Ikasle etorkinei dagokienez, argitu beharra dago ikastetxe erdietan ez dagoela ikasle bat bera ere etorkin gisa matrikulaturik. Beraz, etorkinen ikastetxekako banaketa ez da homogenea.

Kooperatibetako ikastetxeen artean ere diferentziak antzeman dira. Ikastetxe batzuek ikasle etorkinen ehuneko polita duten bitartean, askok eta askok etorkin bat bera ere ez dutela adierazi dute. Zenbaitetan ikastetxearen kokapenak, hau da, lurraldeak edota herriak egin dezake desberdintasun hau. Baina beste kasu batzuetan beste arrazoi batzuk egon daitezkeela pentsa daiteke, hiri bereko bi ikastetxeren artean izugarritzko

5. taula


Indarrean dauden curriculum-, antolaketa- eta kulturarteko estrategiak HPren ondorioz

Indarrean dauden antolaketa- estrategiak Ikastetxeko Harrera-Planaren ondorioz	Bai	% Harrera Plana Dutenean artean (Z=23)
Curriculumaren malgutasuna	16	69,6
Curriculumaren kulturarteko aberastea	14	60,9
Laguntzeko eskola osagarriak	14	60,9
Matrikulazio malgua	12	52,2
Udal zerbitzuekiko lankidetzak	12	52,2
Curriculum Egokitzapen Indibiduala	11	47,8
Hizkuntza sendotzeko gela berezia	11	47,8
Kulturarteko giroaren suspertzea	10	43,5
Etorkin taldeentzako informazioa	10	43,5
Ikasle enbaxadoreak	10	43,5
ICPren gutxieneko berraztertzea	8	34,8
Familia eta giza taldeen arteko bitartekaritza soziokulturala	8	34,8
Kanpoko eragile parte-hartzaileak	6	26,1
Hizkuntza-ikastaro trinkoak	6	26,1
FAAren arau eta jarraibideen berraztertzea	6	26,1
Talde malguak	6	26,1
Agente berria parte-hartzea: gizarte hezitzaileak, bitartekariak,	6	26,1
Taldeekiko kooperaziorako kultur harremanak	5	21,7
Etorkin-taldeen hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza	4	17,4
Senidetze eta elkar trukerako festa eta ekitaldiak	0	0
Zonaldeko ikasgela	0	0

- Txuriz: Antolaketa-estategiak.
- Grisez: Curriculum-estategiak.
- Beltzez: Kulturarteko-estategiak.

diferentziak behatu baitira. Beraz, gai honi heldu egin beharko litzaioke, ez bakarrik kooperatiben artean, euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe guztien artean baizik.


1. grafikoan ikus daitekeen bezala, ikasleen %40a Hego edo Ertamerikatik etorri da eta ondorioz, ehuneko berean lehen hizkuntza gaztelera dute. Beste ehuneko ia 40 Ekialdekoak ez diren Europako beste naziotatik etorri dira (Frantzia, Ingalaterra, e.a.).



1. grafikoa

Ikasle etorkinen banaketa jaioterriaren arabera

2. grafikoan ikus daitekeenez, ikasle etorkinen gehientsuenen hizkuntza gaztelera da.



2. grafikoa

Ikasle etorkinen lehen hizkuntza

Beharrezkoa ikusten da «etorkin» kontzeptuaren definizio adostu eta eraginkorra zehaztea, ez dadin jokabide nahasirik sortu matrikulazio, Harrera-Plan edo baliabideen esleipenak suertatzen direnean.

Kooperatibetako ikasleen artean, ikasle etorkin erdiak baino gehiago D ereduan daude matrikulatuta. Balore erlatiboak aztertzen baditugu aldiz, A ereduan eskolaratutako ikasleak B eta D-n eskolaratutakoak baino gehiago dira.

Denera, kooperatiba guztietako ikasle guztiak kontuan izanik, emaitza oso baxua da euskal hezkuntza sistemako gainerako ikastetxe guztiekin alderatzen badugu.

Aipatu diren baliabideen artean, ezinbestekoa izango da irakasle laguntzaileak izatea kanpotik etorritako ikasleen beharrei aurre egiteko. Gainera kontuan izan behar dugu, gure egoera elebidun honetan, nahiz eta kanpotik etortzen diren haur eta gazte askok gaztelera ezagutu (Ameriketatik dato-zelako) euskararako laguntza beharko dela.

Era berean, etorkin familientzat ere programa bereziak beharko lirateke beraien benetako integrazioa lortzeko eskoletan nahiz gizartean.

6. taula

Ikasle etorkin guztien emaitzak sarearen arabera

Eredua	Publikoak			Pribatu Kontzertatuak						Denera		
				Kooperatibak			Pribatuak (Kooperatibak barne)					
	Ikasle etorkinak	Ikasleak guztira	%	Ikasle etorkinak	Ikasleak guztira	%	Ikasle etorkinak	Ikasleak guztira	%	Ikasle etorkinak	Ikasleak guztira	%
A				45	3.698	%1,22						
B				36	5.255	%0,69						
D				120	28.184	%0,42						
?				8								
Denera	5.747	102.205	%5,62	209	37.137	%0,56	2.859	120.042	%2,38	8.606	222.247	%3,87

3.4. Hezkuntza-Premia Bereziko ikasleak (HPB)

EIKFren ikastetxeetako erantzuna Hezkuntza-Premia Berezien (HPB) aurreran oso desberdina da, bai onartzen dituzten ikasle-kopuruak aztertuz, bai premiei erantzuteko dituzten giza baliabideak behatuz.

Ikastetxeetako ratioa (Haur eta Lehen Hezkuntzan) HPBko ikasleen ehunekoa (%2,11) ia publikoetakoaren erdia da (%4,16) eta eskola pribatuetakoa baino zertxobait altuagoa (%1,94).

7. taula

Baliabide bereziak erabiltzen dituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak

	A	B	D	Guztira	
Ikasle kopurua	1.546	4.210	20.065	25.821	
Baliabide bereziak erabiltzen dituen ikasleria	43	43	461	547	
Baliabide bereziak erabiltzen dituen ikasle portzentajea	%2,78	%1,02	%2,29	%2,11	
CEI duen ikasleriaren portzentajea	%0,77	%0,14	%0,44	%4,41	
CEI duen ikasleria	12	6	90	108	
Zikloko CEI	3	3	39	45	%41,66
Areako CEI	5	3	46	54	%50,00
Zabaltze curricularreko CEIa	1	—	1	2	%1,85
Zehaztu gabeko CEI ¹	3	—	4	7	%6,48

Aztergai diren ikastetxeetan (DBHn) 100 ikasleko HPB dituzten ikasleen ratioa 3,52 ikasle den bitartean, kooperatiba-eskolen ratio hau eskola publikoetakoa baino zertxobait altuxeagoa da (%3.49) eta pribatuetakoa baino altuagoa (%2.9).

¹ Zehaztu gabeko CEIatzat (Curriculum Egokitzapen Indibiduala) jo ditugu ikastetxeek adierazgarritzat jotzen dituztenak baino gerora hiru moten artean agertzen ez direnak (ziklokoak, areakoak edo zabaltzekoak).

8. taula

Baliabide bereziak erabiltzen dituzten DBHko ikasleak

	A	B	D	Guztira	
Kooperatibetako DBHko ikasleak	2.151	1.045	8.119	11.316	
Baliabide bereziak erabiltzen dituen ikasleria	32	3	334	399	
Baliabide bereziak erabiltzen dituen ikasleriaren ratioa.	1,48	0,28	4,11	3,52	
CEIdun ikasleriaren ratioa	1,2	0,38	1,67	1,46	
CEIdun ikasleria	26	4	136	166	
Zikloko CEI	10	—	51	61	%36,75
Areako CEI	16	2	72	90	%54,22
Zabaltze curricularreko CEIa	—	2	13	15	%9,03

HHn eta LHn HPB-ko ikasle gehienak A ereduko ikastetxeetan biltzen dira, bai baliabide bereziak erabiltzen dituzten ikasleak, bai CEIdunak ere. Zenbaki absolutuetan, kopuru handiena D ereduan dago. B eredia de HPB-ko ikasle gutxien dituen.

Kontsultore, Orientatzaile eta Laguntza-Geletako profesionalen figurak ez datoz bat etapa bakar batean ere. Ez orduen eskaintzan, ez zereginetan, ez esku-hartze eremuetan ez da batasunik ikusten. Beste hainbeste gertatzen da laguntzarako profesionalekin bi etapetan. Bi kasuetan, arduraldi handiena Laguntza-Geletan eskaintzen da (LHn %68, DBHn %69) eta eskasena HPB-ko edo aniztasun-arazo dituzten ikasleen Ohiko Ikasgeletan (LHn %15.6 eta DBHn %1.4). Hezkuntza-Premia Bereziei erantzuteko laguntzarako profesionalen lan-guneen erabilera antzekoa dirudi bi etapetan. Profesional berezituen soslaien berrazterketa eskatzen du egoera honek, nahiz eta ausnarketa hau ez dagokien soilik kooperatibei. Azterketa sakonagoa eskatzen du gai honek.

4. ONDORIO OROKORRAK

Lehenik eta behin, argitu nahi genuke ondorio hauek galdera-sortatik jasotako datuekin osatutako «argazkia»n oinarrituko direla. Beraz, ez da helburua ikastetxeeko jardueren laburpen trinkoa egitea, baizik eta Kooperatiba-Federazioari eta ikastetxeei hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko edo etorkizunerako hausnar egiteko emaitzak eskaintzea.

4.1. Datu orokorrak

Irakaskuntzako Kooperatibak **ikastetxe osatuak** dira baina **heterogeneoak**. Azpimarragarriak dira murgiltze-ereduko hizkuntza-ereduen eskaintza sendoa (D eta B-D).

4.2. Hizkuntza-normalkuntza

Ditugun datuen arabera, badirudi badela planteamendu bat aurrez erabakita hizkuntza-normalkuntzaren inguruan. Ikastetxe gehienetan ez da behin-behinekotasunez jokutzen, edo unean uneko erabakien bidez. Euskararen traterari buruzko erabakiak ondo arrazoituta agertzen dira. Nabarmena da euskararen traterak garrantzia duela bai ikastetxeko txarteletan nahiz antolatetan, baita Eskola-Kontseiluaren garapenen eta gurasoen bileretan ere.

Hizkuntza-Ereduen ikuspegitik, esan genezake eredu bat zenbat eta euskaldunagoa izan, alegia D eredua, orduan eta ekitaldi gehiago antolatzen direla euskararen alde. Bestalde, A ereduak euskararen susperketarako ez du apenas emaitzik eskaintzen.

Hizkuntza-ereduez gain, ikasleen adina gora doan neurrian, euskararen erabilera gutxitu egiten dela ikusten da, baita D ereduan ere. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan euskararen erabilera gela barnean nahiz kanpoan antzekoa bada ere, Bigarren Hezkuntzan euskararen erabilera gelaz kanpo erdira murrizten da.

Familiei dagokienez, jasotako datuen arabera, Arabakoek lehen hizkuntza gaztelera dute, eta Bizkaiko gehienek ere bai. Hala ere, oso gutxi dira euskara ikasten ari diren gurasoak, bereziki Araban. Familia egoera hau izanik ere, euskararen aldeko ekimenak eta presentzia Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako ikastetxeetan antzekoa da.

4.3. Ikasle etorkinen integrazioa

Kooperatiben barneko datuen analisisiek edota euskal hezkuntza-sistematikiko edozein alderaketek gogoratzen digute ezinbestekoa dela «etorkin» hitzaren definizio bateratua, adostua eta eraginkorra. Hartara jokabide

sakabanatuen praktika barreiatuak bazteruko lirateke, bai kooperatiben artean, bai administrazioarekiko harremanetan ere.

Eskolen %36k **ikastetxeko Harrera-Plana** du, nahiz eta %47k adierazten duen Integrazio-Planen bat baduela. Oraindik zeregin ugari dago.

Immigrazioarekiko trataeran Kooperatibek **hezkuntza-politika propioa** adosteko beharra proposatzera bultzatzen gaitu. Jakinaren gainean gaude gai honek kooperatiben eta irakaskuntzaren esparrutik haratagoko planteamendu orokorra eskatzen duela.

Ikastetxeetako Harrera-Planek eragindako **estrategien** artean, *curriculum-estrategiak* eta *antolaketa*koak dira erabilienak, *kulturarteko estrategiak* baino gehiago. Kulturarteko trataera eskolatzeko joera hau EIKFko ikastetxeetan oro har nagusi bilakatzen da.

Gizarte kohesioa oso helburu erakargarri eta berritzailea da, baina Plan jakin batera edo organo nahiz ikastetxeko rol batzuetara mugatu ezin dena. Gizarte kohesioak ikastetxe osoko konpromiso kolegiatua eta irmoa eskatzen du. Are gehiago, bestelako eskola-, gizarte- eta administrazio-tek-nikariekin lotura estuko planteamendua derrigortzen du.

Giza baliabide eta perfilekin lotutako beste azken eremu batek **figura eta agente berriak** osatzeko premia azpimarratzera bultzatzen gaitu. Gure kultur ingurunetik urruti dauden beste kulturak eta hizkuntzak dituzten ikasleek ikastetxeetan sortzen dituzten egoeren trataerari aurre egiteko figurak lirateke aipatzen ditugunak.

4.4. **Hezkuntza-Premia Bereziko Ikasleenganako arreta**

EIKFko ikastetxeko **hezkuntza-premia bereziko ikasleen portzenta-jea** Haur eta Lehen Hezkuntza (%2.11) sare publikokoaren erdia da (%4.16), eta sare pribatukoa baino zertxobait altuagoa (%1.94).

EIKFko ikastetxeko **hezkuntza-premia bereziko ikasleen portzenta-jea** DBHn %3.52 da, sare publikokoarena baino altuxeagoa (%3.49), eta eskola pribatuetakoa baino goragokoa, %2.9 baita azken hau.

Soslai profesional jakinen definizio eza, eta jardueren praktikaldietan nahiz zehaztasunetan hutsunea antzematen da. Kontsultore/Orientatzaileen figura eta Laguntza-geletako profesionalena ez datoz bat soslai jakin batekin inongo etapatan. Ez ordu-kopuruetan, ez zeregin profesioaletan, ez esku-hartzeko eremuetan ez dago adostasunik.

Ikastetxeetan antzemandako beharretan, bai HHn, LHn eta DBHn giza baliabide gehiago eskatzen dira, baita **oztopo arkitektonikoen ezabatzea** ere.

Beraz, honako hauek izan dira datu-bilketa honetan ikusi ditugun ondorio aipagarrienak.

Jasotze-data: 2006-03-22

Onartze-data: 2006-04-06

This action falls within the framework of the Strategic Plan 2004-2007 aimed at boosting the development of an Agreement to Promote Cooperatives in the search for better social cohesion. Early analysis of the challenges which this conjuncture sets the Basque education system led the Euskadi Teaching Cooperative Federation (FCEE), in collaboration with the Basque Government, to create an Education Observatory contributes to detecting strategic problems for Basque society and to articulating alternatives in order to make improvements.

Within this context, it was proposed to study the contribution of Basque cooperatives to social cohesion in the field of education, taken from a three-way point of view: a) students requiring special education; b) schooling immigrant students; and c) linguistic standardisation: Basque

The objective of this work has been to obtain real data from the different fields both referring to cooperatives as education systems in the Basque Country and making some comparisons with the rest of the Basque education system network.

Keywords: *Education. Co-operative. Language policy (?). Basque language. Immigration. Special needs*

Esta acción se sitúa en el marco del Plan Estratégico 2004-2007 orientado a impulsar el desarrollo de un Acuerdo de Promoción del Cooperativismo en la búsqueda de una mayor cohesión social. Un primer análisis de los retos que esta coyuntura plantea al sistema educativo vasco, llevó a la Federación de Cooperativas de Enseñanza de Euskadi (FCEE) a avanzar, en colaboración con el Gobierno Vasco, en la creación de un Observatorio Educativo que pueda contribuir a detectar los problemas estratégicos para la sociedad vasca y a la articulación de alternativas de mejora.

En este contexto, se propuso estudiar la contribución del cooperativismo vasco en el ámbito educativo a la cohesión social, entendida desde un triple punto de incidencia: a) alumnos con necesidades educativas especiales; b) escolarización de alumnos inmigrantes; y c) Normalización lingüística: Euskera

El objetivo de este trabajo ha consistido en contar con datos reales de los distintos ámbitos tanto referentes a las cooperativas como del sistema educativo de la CAV y realizar algunas comparaciones con el resto de la red del sistema educativo vasco.

Palabras clave: *Educación. Cooperativas. Normalización lingüística. Euskara. Inmigración. Necesidades educativas especiales*

Cette action se situe dans le cadre du Plan Stratégique 2004-2007 orienté à stimuler le développement d'un Accord de Promotion du Coopérativisme à la recherche d'une plus grande cohésion sociale. Une première analyse des défis que cette conjoncture propose au système éducatif basque, a entraîné à la Fédération de Coopératives d'enseignement d'Euskadi (FCEE) à avancer, en collaboration avec le Gouvernement Basque, vers la création d'un Observatoire Éducatif qui puisse contribuer à détecter les problèmes stratégiques pour la société basque et pour l'articulation d'alternatives d'amélioration.

Dans ce cadre, on a proposé d'étudier la contribution du coopérativisme basque dans le milieu éducatif à la cohésion sociale, entendue comme un triple point d'incidence: a) élèves avec des besoins éducatifs spéciaux; b) scolarisation d'élèves immigrants; et c) Normalisation linguistique: Euskera

L'objectif de ce travail a consisté à compter sur des données réelles des différents domaines concernant aussi bien les coopératives que le système éducatif de la CAV et réaliser quelques comparaisons avec le reste du réseau du système éducatif basque.

Mots clé: Education. Cooperative. Politique linguistique. Langue basque. Immigration. Besoin spéciaux.

BIBLIOGRAFIA

BASURKO, F. *et al.* (2005): «Gizarte Kohesioa Hezkuntza-Kooperatibetan» Bilbo: *Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben 1. Batzarra*. Bilbo: 2005eko azaroak 17-18. (Argitaratu gabeko txostena).